



Langai

1991 ko EKAINA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 11

III. KONGRESURANTZ

Batasun Nazionala Erabakiak

- Kongresu Aurreko Faserako Arautegia
- Kongresurako datak
- Kongresu Aurreko Faserako egutegia
- Ponentzien Gidoiak

Zbkia

ZA
BAI
TZEN

TXT 10013
DOKUMENTAZIO
ZENTROA

III. KONGRESURANTZ

1.- ORAIN ARTE I.N.ak HARTUTAKO ERABAKIAK

2.- KONGRESU AURREKO FASERAKO ARAUTEGIA:

2.1.- Sarrera

2.2.- Ponentzien eztabaida

2.2.1.- Eztabaida markoak

2.2.2.- Erabaki markoak

2.2.3.- Ponentzien aurkezpena

2.2.4.- Erantzunkizun organizatiboak

2.3.- Enmendakinak

2.3.1.- Nola eta nork aurkez ditzake enmendakinak

2.3.2.- Osotasunera

2.3.3.- Zatikakoak

2.4.- Kongresurako ordezkariak

2.4.1.- Ordezkaritza sistema eta eskualde bakoitzeko ordezkari kopurua

2.4.2.- Hautagarriak eta hautesleak

2.4.3.- Hautaketa

3.- KONGRESUA (Azken Jardunaldiak):

3.1.- Bukaera data eta jardunaldia

3.2.- Arautegia

3.3.- Kongresurako mahaiaren hautaketa

4.- KONGRESURA BITARTEKO EGUTEGIA

5.- PONENTZIEN GIDOIAK

5.1.- Koiuntura azterketa

5.2.- Sindikal ekintza

5.3.- Antolaketa eta estatutoak

III. KONGRESURANTZ

Idazkaritza Nazionalaren baitan, Kongresua hasi da gorpuzten eta martxan dagoen errealitate bat izatera pasatu da. Gure asmoa da estrukturak eta afiliatuak ere has daitezela ohartzten eta barneratzen LABen III. Kongresuak gure Erakundearentzako eta ENAM osoarentzako duen garrantziaz.

Bai kongresu aurrekoa deitzen dugun lehenengo fase honetan, eta bai kongresuan bertan ere, lehenasunezko helburu da gaur egun, eta oso harro gainera, LAB deitzen dugun proiektu horren eraketan parte hartzen dugun gizon eta emakumeok aktiboki eta konstruktiboki parte hartzea bultzatzea.

1.- ORAIN ARTE I.N.ak HARTUTAKO ERABAKIAK

Laburki gogoratuko dugu Idazkaritza Nazionalak, Herrialdeko Idazkaritzetako eztabaiden ondoren, onartu duen gauza bakarra izan dela Kongresurako Batzorde Nazionala eratzea ("Idazkaritza Nazionala" zirkularra), beti ere I.N.aren eta B.N.aren erabakien menpe egongo dena, eta Azpiegitura Area, Ponentzia Area eta Barne Arautegi Area izendatu ditugun hiru Areak sortzea. Area bakoitzeko arduradun izateko izendatutako I.N.eko hiru kideek osatuko dute aipatu K.B.N., arazo zehatzetarako K.B.N.ean aparatuko nazionaletako zenbait arduradun egotea beharrezko izango dela bazartu gabe.

Honi buruz, azpimarratu behar da Kongresuaren prestaketan eta garapenean Propaganda eta Prentsa eta Diruzantza Aparatuek izango duten garrantzia. Propaganda eta Prentsak beraien jokabide eta aportazioa planifikatu beharko dute, batez ere Irailaren 1etik Kongresua bukatu bitartean, momentu bakoitzean estruktura

nazionalak, Ponenteek eta K.B.N.ak berak hartuko dituzten erabakietan oinarriturik. Era berean, Diruzantza Nazionalak Kongresurako Aurrekontua egiten, aurreikusitako bukaera ekitaldia barne, eta desplazamenduak, janaria, gaua, eta antzeko arazo garrantzitsuak aztertzen hasi beharko du.

2.- KONGRESU AURREKO FASERAKO ARAUTEGIA:

2.1.- Sarrera:

Kongresuaren dinamikan afiliatuen parte-hartzeari buruz nahi dugunaz sarreran aipatu duguna eta horrek suposatzen duen guttia kontutan izanik, erabakiko dugu horretarako beharrezkoa izango dela lurralde estruktura funtzionamendua flexibilizatzea eta egokitzea, parteharze hori erraztuko duten neurri praktikoak hartuz.

Ez dugu inongo sekreturik agertaraziko esaten badugu gure lurralde estruktura banatua dagoen 33 eskualdeek, izendatzaile komun bat badute ere, antz gutxi dutela batzuek besteekiko. Ez afiliatu kopurua, ez bakoitzaren funtzionamendua, ez finkatutako sail sindikal kopurua, ez zabalkunde geografikoa, ez bertan sartutako herri kopurua ez dira berdinak eskualde guztietan. Beraz, ia ezinezkoa da, oso gomendagarri ez izateaz gainera, eskualde guztietarako eta bakoitzetarako funtzionamendu patroi bakar, homogeneo eta milimetratu batetan oinarritutako eurri edo erabakiak proposatzea. Honengaitik, ondoren proposatzen den arautegiak ez du helburutzat azken xehetasuneraino lotzea eztabaida, enmendakin, botazio, etab. nola egin. Onartzen dugun arautegiaren arauera, lurralde estruktura dagokie eta, zehazkiago, H.I. eta E.I.ei, eskualdeko errealitateari hobekien egokitzen zaizkion mekanismoak erabaki eta ezartzea.

Laburtuz, esango dugu arautegi hau eskualde bakoitzeko ezaugarriei egoki dakiekeen arautegi orokor bat dela, baina helburu argi eta kuestionaezin bat duena: afiliazioaren partehartzerik handiena posibilitatzea eta fase honetan parte hartzeko aukerarik gabe afiliaturik dadin gera ziurtatzea, HHI eta EEIen esku utziz aipatu arautegian ez dauden aspektu praktikoei buruzko aurreragoko zehaztasun handiagoak.

2.2.- Ponentzien eztabaida:

2.2.1.- Eztabaida markoak:

* Afiliazio guztia, I.N.eko kideak eta liberatuak barne, afiliatu modura agertzen diren eskualdeko estrukturan egongo da kokatua.

* Eskualde bakoitzaren afiliatu kopuruaren, fiabarduren, zabalera geografikoaren,... arauera, dagokion Elk, HIREkin aztertu ondoren, neurriak artikulatu ahal izango ditu eztabaidak ekintza marko naturaletan eman ahal izan daitezen, hau da, sail sindikaletan, herriko afiliatu asanbladetan, delegatu asanbladetan,...

* Osasungintza, Irakaskuntza eta Administrazio sektoreei dagokien afiliazioak ere bere marko naturalean eztabaidatu ahal izango du, hau da, bai eskualde edo herrialde mailako sektoreko bileratan edo afiliatu modura dagoen eskualdeko idazkaritzak artikulatu dituen markoetan.

* Nolanahi ere, eskualde bakoitzeko afiliatu bakoitzak nahiko garaiz jakin beharko du egokitu zaion eztabaida markoa, bai eta ponentzien aurkezpenerako, enmendakinetarako, ordezkari hautaketarako,... onartu den egutegia ere.

* Bideratzen diren eztabaida marko guztietan pertsona bat izendatuko da eztabaida markoa E.I.rekin koordinatzeko.

* Arduradun hauek egiten diren bileratako aktak jaso beharko dituzte horretarako bideratuko diren eta E.I.tara bidaliko diren inprimakin ofizialetan..

2.2.2.- Erabaki markoak

* Hasera batetan behintzat eskualdeko afiliatu asanbladak berak erabakirik hartuko duenik aurreikust ez bada ere, eta, beraz, eztabaida fasean botazioak beharrezko gertatuko ez badira ere, komenigarria da zehaztea, hauek beharrezko izateko kasu hipotetikoan, eskualdeko afiliatuen asanbladan, afiliatuen partehartzerako oztopo ez den bitartean, edo herriko afiliatu asanbladan, dagokion E.I.ren gainbegiradarekin, hartuko lirakekeela. Kasu honetan, herriko afiliatu asanblada herri horretan kokatutako lan zentru guztietako afiliatu guztiek osatua egongo litzateke.

2.2.3.- Ponentzien aurkezpena

* Ponentzi bakoitzaren aurkezpen ofiziala eskualdeetan, eskualdeko bertako afiliatuen asanbladan egingo da. Aurkezpen hau baino lehenago, Ponentzia nahiko garaiz emana izango zaio afiliazioari. Aurkezpena, batzorde idazlearen kideren baten kontura izango da.

2.2.4.- Erantzunkizun organizatiboak

* Lehen esan badugu ere, aurkezpenaren eta ondorengo ponentzien eztabaiden, egutegi onarpenen, eztabaida eta beharrezko balira erabaki markoen artikulazioaren plangintzari buruzko erantzunkizuna, hau da, arautegi honetan erantzunik ez duten edo estruktura nazionalak erabakitzen ez dituzten arazoei buruzko erantzunkizuna, herrialde bakoitzeko H.I.ri dagokio.

2.3.- Enmendakinak:

2.3.1.- Nola eta nork aurkez ditzake enmendakinak

* Enmendakinak aurkeztu ahal izango dituzte, zatikakoak edo osorakoak, 1991ko Urriak 1 baino lehenago Sindikatuko afiliatu modura agertzen direnek eta egun horretan kuoten ordainketa ondo daramatenek.

* Enmendakin hauek, hasera batetan, indibidualki aurkeztuko dira bere egunean

eta ezarritako epeetan bideratuko diren inprimakin ofizialetan.

* Enmendakin guztiak euskaraz eta gaztelera aurkeztu beharko dira. Horretarako herrialdeko Aholkularitzak, H.I.k edo E.I.k beharrezko bideak jarriko ditu.

* Enmendakinak Eskualdeko koordinatzaileari emango zaizkio, honek herrialdeko Organizazio arduradunari eman diezazkion eta honek, era berean, batzorde idazleari eta I.N.ari.

2.3.2.- Osotasunera

* Osotasunerako enmendakin bat aurkeztu ondoren, ezarritako era eta epeetan, I.N.a izango da arduraduna hau afiliazio gutzira iritxi dadin ezagutzeko, aurkezteko beharrezko balitz eta ondoren eztabaidatzeko.

* Eskualdeetako eztabaida bukatu ondoren, B.N.ean eztabaidatuko da. Osotasunerako enmendakin bat Kongresuan eztabaidatu ahal izateko, gutxienez B.N. horretan dauden kideen %15aren laguntza beharko du.

2.3.3.- Zatikakoak

* I.N.ak eta Batzorde Idazleak jaso ondoren, aurkeztutako enmendakin guztiak behar bezala ordenatu ondoren, afiliatoria pastuko dira ezagutu eta eztabaidatzeko.

* Eskualdeetako eztabaida bukatu ondoren, zatikako enmendakin bat Kongresuan eztabaidatu ahal izateko, gutxienez estruktura baten, batzorde idazlearen edo eztabaida marko baten (2.2.1. puntua) edo eskualde berdinekoak izan beharrik ez duten gutxienez 10 afiliaturen laguntza izan beharko du.

* Zalantzarik gabe, batzorde idazleak, enmendakinak ezagutu ondoren, kontaktoak hasi ahal izango dituzte enmendakinak egin dituztenekin hauen onarpen posiblea baloratzeko.

2.4.- Kongresurako ordezkariak:

2.4.1.- Ordezkaritza sistema eta eskualde bakoitzeko ordezkari kopurua

* Orain arte Kongresu Plenoa osatzeko kopuru gomendagarri modura 750-800 ordezkari aipatzen bagenituen ere, komenigarria litzateke kopuru hori birkontsideratzea eta 600 ordezkari inguruan kokatzea. Arrazoi garbiak medio, 1991 urtean zehar izan dezakegun afiliazio garapena ezagutzen ez dugunez, Kongresu Plenoa osatuko duten ordezkari kopuru zehatza ezin dugu esan.

* Honez gain, zehaztu dezakegu erabiliko dugun ordezkari sistema. Nolanahi ere, ordezkari hau territoriala izango da, eta eskualde eta herrialde bakoitzeko afiliatu kopuruaren arauerakoa.

* Afiliazioaren garapena ezagutzen ez dugunez, eta kopuru gomendagarri modura 600 ordezkariatik abiatuz, 300 afiliatuko ordezkari bat aukeratzea gomendatzen dugu.

* Eskualdeetan ordezkariak hautatu ondoren, Herrialdeko Konferentziek eskualdeetan aukeratutako gehituko zaizkien %8 delegatu gehiago aukeratuko dituzte, gaituztekoen eskubide eta betebeharrak izango dituztenak.

* Eskualde bakoitzari eta H.K. bakoitzari aukeratzea dagokion ordezkari kopurua kalkulatzeko, oinarritzat hartuko da eskualde eta herrialde bakoitzean 1991-12-31n dagoen afiliatu kopurua.

2.4.2.- Hautagarriak eta hautesleak

* Hautagarri eta hautesle izango dira, 1991-12-31n kuoten ordainketa zuzen eman eta 1991-10-1 baino lehenago afiliatu modura agertzen diren afiliatu guztiak.

2.4.3.- Hautaketa

* Eztabaida markoetan hautagaiak aurkezteko epe baten ondoren, E.I.k hautagaien aldarrikapen ofiziala egingo du eta, alfabeti-

koki jarritako zerrenda batetan, botaziora jarriko du.

* Ordezkariek aukeratzeko botazioa eskualdeko afiliatuen asanbladetan edo herriko afiliatuen asanbladetan egin ahal izango da, erabaki markoei buruzko 2.2.2. puntuan adierazten den bezala.

* Hautaketa bukatu ondoren, arduradun bakoitzak akta jasoko du emango diren inprimakin ofizialetan, bertan adieraziko direlarik aurkeztu den hautagai bakoitzak lortu dituen botuak, aukeratua izan ala ez. Akta Eskualdeko Koordinatzaileari emango zaio, honek herrialdeko organizazio arduradunari emango diolarik.

* Aukeratutako ordezkariaren batek Kongresura etortzerik izango ez balu, E.I.k lortutako botu kopuruari dagokionean hurrengoa dagoenarekin ordezkaturiko du.

3.- KONGRESUA

3.1.- Bukaera data eta jardunaldia

* Kongresua ospatzeko 1992ko Martxoaren 19, 20 eta 21 proposatzen dira. 19 eta 20 eztabaida eta erabaki jardunetarako izango lirateke eta 21 Bukaera Jardunaldirako. Bukaera Jardunaldi honek bi zati izango lituzke, bata barrukoa eta bestea kanpukoa, izaera politiko-sindikala baina batez ere jai giroa izango duena.

3.2.- Arautegia:

* Uste dugu oraindik ez duela presarik Kongresurako Arautegia lantzeak, hau baldintzatu dezaketen arazo garrantzitsuak ez bait ditugu ezagutzen: ponentziak, enmendakinak,... Hala ere, zehaztu dezakegu B.N. izango dela Kongresu Plenoari Arautegi proposamen bat egingo diona, onartu ondoren, funtzionamendurako oinarritzko arautegia izango dena.

3.3.- Kongresurako mahaiaren hautaketa:

* Puntu honetan erabiliko den mekanika aurreko puntukoaren berdina izango da.

4.- KONGRESURA BITARTEKO EGUTEGIA

Nahitaezkoa da egutegi bat edukitzea, denboran zehar aldaketak jasango baditu ere, erreferentzia izango dena hartu ditugun konpromezuak betetzen saiatzeko.

Ondoren proposatzen dizuegun lan egutegia –data eta eperik garrantzitsuenak bakarrik jasotzen dituen– orientagarritzat har daiteke, eta proposatutako egunera geruratzen ari garen heinean baieztatu edo egoerara egokitu beharko da.

– Ekainak 29: ondorengoa onartzeko B.N.:

* Ponentziak eztabaidatzeko arautegia

* Ponentzien gidoiak

* Ponenteak/ponentzien idazleak

– Ekaina, Uztaila eta Abuztua: oinarritzko ponentziak egitea.

– Irailak 15: Oinarritzko ponentziak I.N.era aurkeztea.

– Urriak 15: Ponentziak afiliazioari banatzea eta eztabaiden hasera.

– Abenduak 1: Kongresurako Arautegiari buruzko eztabaidaren hasera.

– Abenduak 1: Osotasunerako enmendakinak aurkezteko epearen amaiera.

– Abenduak 1: Zatikako enmendakinak aurkezteko epearen amaiera.

– Abenduak 16: Enmendakinei buruzko eztabaida hasera.

– Urtarrilak 25: ondorengoa onartzeko B.N.:

* Kongresurako Arautegia

* Osotasunerako enmendakinak

– Urtarrilak 25-Otsailak 15: ordezkarien hautaketa.

– Martxoak 19, 20 eta 21: Kongresua.

5.- PONENTZIEN GIDOIAK:

5.1.- Koiuntura azterketa

5.2.- Sindikal ekintza

5.3.- Antolaketa eta estatutoak

Euskadin, 1991ko Ekainaren 29 an

PONENTZIEN GIDOIAK

KOIUNTURA ETA KONTEXTU POLITIKO SOZIAL PONENTIZAREN GIDOIA

1.- KONTEXTU POLITIKO OROKORRA

- 1.1.- Nazioartekoa
- 1.2.- Espainiar Estatua
- 1.3.- Hego Euskadi
- 1.4.- Iparralde

2.- SINDIKALISMO ETA KLASE BORROKAREN NAZIOARTEKO BILAKAERA

- 2.1.- Perestroika
- 2.2.- Sozialdemokrazia europear eta nazioartekoa
- 2.3.- Kapitalismoa - Krisia - Bilakaera
- 2.4.- Bakea eta desarmea

3.- SINDIKALISMOA ETA GIZARTEAREN ALDAKETA:

- 3.1.- Sindikalismo Mendebaldeko Europan
- 3.2.- Sindikatuan eta Langileriaren ideologizazioa
- 3.3.- Sindikatuak eta aktibitate ekonomiko-politikoa
- 3.4.- Sindikalismoa eta orden soziolaboral berria
- 3.5.- Sistemaren erasoak eta langileak

4.- EGOERA EKONOMIKOA

- 4.1.- Hazkundera - Menpekotasuna
- 4.2.- Euskadi - Espainiar Estatua - EEE - marko juridikoa
- 4.3.- Euskal ekonomia eta Euskadiren etorkizuna

5.- EUSKAL LANGILERIA

- 5.1.- Bilakaera ideologikoak Euskal Langileriarengan
- 5.2.- Sindikalismoa Euskadin

6.- LAN KLASE SINDIKATU ABERTZALEA

- 6.1.- L.A.B., ENAM eta borroka ereduak
- 6.2.- Gizartearen aldaketa - Helburu taktikoak eta estrategikoak
- 6.3.- Indarrean dagoen marko politikoa eta E.L.
- 6.4.- L.A.B. eta bakearen konkista

EKINTZA SINDIKAL PONENTZIA

EGOERA EKONOMIKOAREN AZTERKETTA

Nazioartekoa

- Kapital monopolistaren kontzentrazio eta nazioartekoratzia.
- Aurrerapen tekno-zientifikoa.
- Zentru-Ingurua. Kontraesanak. Desberdintasunak. Joerak.
- Kontraesan inter-inperialistak. USA hejemonikoa?
- EEE. Desberdintasun errejionalak. Merkatu Bakarra.
- Ziklo ekonomikoa. Langabezia estrukturala.
- Kapital monopolista eta politika ekonomikoak.
- Herrialde industrializatu berrien azaleratzea (larrialdia?)
- Sistemaren krisia. Autodefensa mekanismoak.
- Munduko orden ekonomikoa berria.

Estatutua

- Estatuko ekonomia nazioarteko Kapitalismoaren kontextuan. EEEen sartzea.
- PSOeren politika sozio-ekonomikoa. Eraginak. Konpetitibitatearen hitzarmena.
- Enplegua Espainiar Estatuan.
- Sistemaren krisian Estatuko ekonomian izan ditzaken eraginak.

Hego Euskadi

- Euskal ekonomiaren egoera eta diagnostikoa ekoizpen sektoreka:
 - Nekazaritza
 - Arrantza
 - Industrialia
 - Zerbitzuak

- * Egoera
- * Enplegua
- * Perspektibak

- Hego Euskadi eta nazioarteko Kapitalismoa.

- Krisia eta bere eraginak Hego Euskadiko ekonomiarengan.

- Euskal ekonomia eta gaur egungo marko juridiko-politikoa.

EKINTZA SINDIKALA

Atal honi buruz bi aukera zeuden. Hauetariko bat gai nabari guztiak hartzea zen (lan harremanetarako marko autonomoa, Emakumea eta ekintza sindikala, parte-hartze instituzionala, batasun sindikala...), honekin lan zabalegi eta praktikotasun gutxi duena aterako litzatekeelarik. Bigarren aukera LABen sindikalismo ereduak jarraitu behar duen bide eta bilakaeraren **lerro orokorrak** ezarriko zituen ponentzia bat egitea litzateke: langileriaren beharrak asetzeko eguneratutakoa, gaur egungo egoerarekin bat datorrena, baina Kapitalaren morroi eta Erreforma Politikoaren esklabu den sindikalismo konbentzionalera iritxi gabe, hau da, koiunturaren eta, batez ere, ENAMen existenzietara egokitu gure oinarrizko presu-
puestoak jaitsi gabe.

Bigarren bide hau aukeratu da, ondorengo atalak izango litzuzkeena:

- 1.- Sarrera.
- 2.- Langileriaren egoera.
- 3.- Euskal Esparru Ekonomikoa.
- 4.- Lan Harremanetarako Marko Autonomo bat.
- 5.- Gure prozesuaren fase honetarako ekintza sindikala.
- 6.- Berehalako helburuak.

ANTOLAKETA PONENTZIA

*"Edozein erakunderen tragedia da
Lege eta Askatasunaren arteko tentsioa
disziplina eta sormenaren artekoa
bai, batzuek, bai besteak, beharrezko bait dira"*

*"Oreka:
haritza bezain tinko
ihia bezain malgu"*

BLOKEAK

SARRERA

- I.- GAUR EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA
- II.- TEORIAREN ARGITAN
- III.- IRTENBIDE PROPOSAMEN ETA BIDEAK

ERANSKINA: ESTATUTUOK

IRAKURKETA PERTSONALERAKO LAGUNTZA MATERIAL ERANSKINAK

- * Antolaketa esperientziak
- * ...

SARRERA

Ponentzia hau ezin da Kongresurako gairontzeko ponentziengandik aislatuki hartu; kokatuko gaituen errealitate bati erantzun behar dio, azterketa baten balorazio bati (klase enfrentamendu abertzalearen ardatzak,...), gure interbentzioa zuzenduko diegun elementuen aukera bati, gure interbentzioari buruzko lehentasunak ezartzeari, ...

Honela bada, "antolaketa"ri buruz egiten ditugun hausnarketak ondorengoarekiko koherente eta egokia izan behar du:

- * Abiapuntutzat ditugun presupuestoak:

– Helburu estratejikoak: Independentzia eta Sozialismoa.

– KAS Bloke Zuzendariko partaide gara.

– Helburu taktikoa: KAS Alternatiba, lan harremanentarako marko autonomo bat, zehazki.

* Inguruan dugun errealitatea: koiuntura azterketa.

* Koiuntura honetan jokatu behar dugun oinarritzko papera: gure interbentzio sindikala.

I BLOKEA

GAUR EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

PERSPEKTIBA EDO ENFOKEA

Antolaketa ikuspuntutik izan ditzakegun arazoek beti dute "arrazoi piskabat": aspektu positibo eta beharrezkoen "exajerazio" edo desorekak dira. Adibidez: boluntarismoa deformazio bat da, errealitatea aldatzeko, berarengan aktiboki interbenitzeko gaitasun indibidual eta Kolektiboaren "exajerazio" bat; gainontzeko antolaketa aspektu eta elementuak nahiko garatzen ez direnean (errealitatearen, medioen, ... azterketa), interbenitzeko gaitasun hori, dejenerazioz, boluntarismo bilakatzen da.

Antolaketa arazoak aldatu eta ezabatzeko garrantzitsuena oreka, proportzionalitatea bilatzea da: batzutan aspektu positibo deformatua gutxiagotuz, bestetan hazi ez diren aspektuak gehiagotuz. Gauza ez da "moztea", aspektu guztiak proportzionalki alimintatzea baizik: gauza askotatik piskabat jan, eta ez asko gauza gutxitatik, horrek... kalte egiten bait du.

ARAZOAK AURKITU ETA KOKATZEA

Arazo batzuk pertsonen sortzen dituzte, besteak barne estrukturaketak berak, eta besteak estrukturei ezartzen dizkiegun metodolojiek, dinamikek.

* **Pertsonalak:**

- Militantziaren ezaugarri edo "estiloa".
- Antolaketa bizitzarik eza.
- Boluntarismoa.
- "Propietatea"ren zentzua ---> dialektika kritiko/autokritikoaren onarpen bitalik eza.
- Pertsonalismoa ---> talde lanarekiko erresistentzia.

- Trebakuntzarik eza, kokapen txarrak, ...

* **Estrukturak:**

- Lokalismoa: enpresa/sektorea/eskualdea/herrialde
- Bileritis ---> "ardura kolektiboa" gaizki ulertu.
- Antolaketa inflazioa: pertsona guztiak organu guztietan.

* **Metodologia eta dinamikak:**

- Plangintza eta ebaluaziorik eza.
- Informazio tratamendu eta transbasea.
- Lanak ez zehaztea eta sistematizatzea.
- Ardura desberdinen arteko gelditasuna.
- Autoritate printzipioa ---> eztabaida hutsa.
- Eztabaida prestaketa eta metodo eza.
- Bileren dinamika txarra: moderatzailea, ...
- Segurtasuna.

BETE BEHAR DITUGUN HELBURUAK

* Gure interbentzio esparruan (Euskal Langileria), zuzendaritza politiko eta sindikala behar bezala karakterizatzea (dinamizazioa). Militantzia "estiloa"rekiko ere eragina izango duena.

* Antolaketa ahulatsuna gainditzea: trebakuntza, iraupena, egonkortasuna, ... (faktore pertsonalak, estrukturalak eta dinamikazkoak).

* Irtenbide efikaz bat gure antolaketa inflazioarentzako (militante berdinak organu gehiegitan, militante bakoitzarentzako bilera gehiegi, ...)

II BLOKEA

TEORIAREN ARGITAN

MILITANTZIA IRAULTZAILEA

- * Antolaketa militantearen beharra.
- * Militantziaren beharra.
- * Militantziaren karakterizazio edo estioa:
 - Aukera pertsonala.
 - Aukera integrala: aukeran garapen pertsonalaren aspektu guztiak sartzen dira.
 - Oreka: dinamikoki bilatu eta aurkitzen da proiektutik, eta ez garapen pertsonal eta sozialetik.
 - "Haragitua", sartua, ... herriaren eta klasearen baldintza berdinak bizi ditu.

EUSKAL PROZESU IRAULTZAILEA (ALDAKETA SOZIALERAKOA)

Antolaketa perspektibatik, honelakoa da prozesua:

* Integrala: gaur egungo pertsona eta gizartea explotazio ekonomikoaren, menperatze politikoaren eta alienazio ideologikoaren eragin osoaren ondorio gara. Prozesuak pertsonaren eta gizartearen dimentsio guztiak jasotzen ditu. KAS, antolaketa esperientzia integral modura.

* Politiko/militarra: elkarrekintza iraunkorra bata bestearikiko independentzia eta determinaziotik, osagarritasuna, mihizadura eta sintonia (dialektika). Prozesuaren momentu edo fase bakoitzak borrokaren modu zehatz bat aukeratzea eskatzen du (masa, instituzionala, armatua).

ERAKUNDE - LANGILE HARREMANA

- * Erreformismoaren gutxiegitasuna.

* Abangoardismoaren gutxiegitasuna: determinismoa eta mekanizismoa ("gurea justua da ---> garaipena nahitaezkoa da), etsaiaren eta bere bizkar sozialaren mugimenduak gutxiestera zuzentzen gaituena eta azterketetan, hausnarketa teoriketan, antolaketa medioetan eta interbentzioan bertan (eduki eta moduak) zorrzotasunak sortzen dizkigunak.

- * Berezkotasunaren gutxiegitasuna.

ZUZENDARITZA LANGILE MUGIMENDUAREN-ESPARRUAN

* Langile arazoak sartzearen beharra du, eta hortik abiatu behar du: errealismoa eta baldintza zehatzak ezagutzea ematen digu; langileria partaide izatera bultzatzen gaitu, langileriak bertako partaide ikusten gaitu, ...

* Azterketa, kalitatezko proposamenak lantze eta interbentzio gaitasuna (trebakuntza) iraunkor kolektibo eta indibiduala, talde lanaren dinamika, ...)

* Dinamizazioa: dialektika malgutasun/tinkotasuna gure edukiak aurkeztu eta gure interbentzioa artikulatzeko orduan; egokitasunaren zentzua; medioarekiko egokitzea eta kritiken kokapen/asimilazioa, ... Gauza "konbentzitzea" da, eta ez "irabaztea", gauza langileriak gure proiektua aukeratzea da, eta ez jendea gure proiektura "aglomeratzea".

* LAB Langilerian dagoenean eta parte hartzen duenean, Blokea dago eta parte hartzen du.

* Langileria ez goaz "denok batera"; beharrezkoa da partehartze estruktura ego-

kiak ezartzea kontzientzia maila bakoitzera-
ko. Pertsona bakoitzak LABen pertsonal
garapen, konpromezu etapa bakoitzerako
bere toki egokia aurkitu behar du, konpro-
mezu pertsonal bakoitzerako.

ERAKUNDE IRAULTZAILEAREN BARNE FUNTZIOAK

* Azterketa ---> azterketa, hausnarke-
ta, trebakuntza, plangintza, ... estrukturak.

* Erabakia ---> barne ordezkari-
ta es-
trukturak.

* Ekintza ---> interbentzio estrukturak.

III BLOKEA

IRTENBIDE PROPOSAMEN ETA BIDEAK

LABen ANTOLAKETA KARAKTERIZAZIOA

PARTEHARTZE ORGANIZATIBOA

ESTRUKTURA SEKTORIALA/LURRALDE
ESTRUKTURA

ANTOLAKETA FUNTZIONAMENDUA

A.- ESTRUKTURAK

* **Azterketa estruktura:**

- Barne eraketa.
- Ekintza erreibindikatiboa.
- Komunikazioa (prentsa eta propagan-
da)
- Trebakuntza.
- Diruzantza.
- Idazkaritza tekniko ekonomikoa.
- Idazkaritza tekniko juridikoa.
- Lan batzordeak (lan osasuna, ...).

* **Estabaida eta erabaki estruktura:**

- Sail sindikalak: asanblada, delegatuak,
...
- Eskualdeak: asanblada, idazkaritza.
- Herrialdeak: konferentzia, idazkaritza.
- Nazionalak: kongresua, batasun nazio-
nala, idazkaritza.

* **Ekinbide estrukturak:**

- **Patronalarekiko (publikoa eta pribatua)**
 - Enpresa/lan zentrua: sail sindikalak,
delegatuak eta komiteak.
 - Sektoreak: delegatuen sektoretako
asanbladak.
 - Lurraldekoa: delegatuen lurralde
asanbladak.
- Instituzioekiko:
 - Jarraipen instituzionala (LHK, ...)
 - Aholkularitza tekniko juridiko eta
ekonomikoa.

- Ekintza erreibindikatiboa.

- **Euskal langileriarekiko:**

- Komunikazioa.

(estruktura bakoitzean: funtzioak, konpo-
saketa eta dinamika)

B.- ARDURAK

Ardura pertsonal bakoitzerako definitu
behar da:

- lanak.
- zein organuri dagoen atxekia
- pertsonaren perfila

ESTATUTO ERANSKINA

Azkena onartu zirenekiko dauden aldake-
tak eta sartuko direnak ikusirik, proposatzen
dut eskema eztabaida aurreratua dagoenean
egitea.

LAGUNTZA MATERIAL ERANSKINA

Ponentzian aspektu informatzaile eta an-
tzeokoak ez sartzeko bide modura sartzea
proposatzen dut, erreferentzia gisa interes-
garri eta garrantzitsuak izan daitezkeenak.